

TOLOSALDEAKO OSPITALE PUBLIKOA

80. hamarkadan, Tolosaldeko osasungintza beharrei erantzuteko, erantzukizunez, eskualdeko alkateak elkartu ziren. Orduko alkate mugimenduak zerbitzuen kontzertazioaren bidez, une hartako eskualdeko herritarren osasun beharrei erantzun zioten.

XXI. menderako bidean, eskualdeko herritarrok jasotzen genuen zerbitzuan gabeziak agertzen hasi ziren. Horri erantzunez, “Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko” mugimendua sortu zen, urteetan zehar agerian utziz eskualdeko osasun zerbitzuak ez zituela behar bezala erantzuten herritarren beharrak.

Urte guzti hauetan zehar, TOPArekin elkarlanean eta aldarrikapenekin bat eginez aritu dira, EH Bilduren alkateak eta baita zenbait herri txikitako alkate independente batzuk ere.

Bat bateko jarrera aldaketa eman zuen eskualdeko EAJ/PNVk 2019ko hauteskunde bezperatan. Ordurarte urte luzetan Tolosaldeakoa beste eskualdetako osasun zerbitzuaren parekoa zela defendatzen zuen arren, orduan ospitale publiko baten beharraren iritzia publiko egin zuen. Berri pozgarria izan zen, urte luzetan egindako borrokaren ondorioz, eskualdean falta zen eragileak bat egin baitzuen herritarren eskaerekin.

Erabaki aldaketa honekin, hitzetatik ekintzetara igarotzea dagokigu. Gure osasun eskualdea osatzen duten 31a herrietatik 25k abiatu duten alkate mugimendurekin aurrera egitea dagokigu. Olatz Peon, Tolosako alkateak duela gutxi prentsara idatzitako eskutitzak jasotzen dituen hitzetatik abiatuta “...batu ditzagun indarrak eta jarrai dezagun lanean herritarren beharrei erantzuteko.”

Hori horrela, honako erabakiak hartzen ditu Tolosako Udalbatzak:

1. Tolosako Udalak, Tolosako alkatearen bidez, Alkate Mugimenduan parte hartuko du, 80. hamarkadan egin zen bezala.
2. Tolosako Udalak egitea eskatu duen Tolosaldeko Ospitale berrirako kokalekuaren azterketaren ondorioak Alkate Mugimendurekin partekatuko ditu.
4. Tolosako Udalak, osasun eskualdeko eragile ezberdinekin etorkizuneko osasun ereduaren hausnarketa egitea egoki ikusten du eta prozesu horretan, bertan parte hartuko du.